

PEDRO YRIZAR, LANGILE, JAKINTSU, GIZON

Urtarrilaren 10ean itzali zen Madrilan, Lagasca kaleko bere etxean, Pedro Yrizar euskaltzain ohorezkoa, lan handiaren egilea, eta batez ere dialektologia ikerketa luze eta sakona burutu duena. Makal zegoen sei hilabetez gero, eta larriak izan ziren haren azken orduak. Bere oinazean, emazte maite-maitea deitzen zuen, fedea lagun zeruan hura berriz ikusteko nahian. Biharamunean, Azkoitian, familiaren elizatzooan, ohol apal batzuen azpian, ehortzi zuten Yrizar jauna, senide eta adiskide anitz bertan zirela.

93 urterekin joan zitzaigun, zinez bizitza emankorraren ondoan. Zeren nork ez ditu euskalkien iker-alorrean Yrizarren lanak erabili? Nork ez ditu euskalki guztieta-ko hamalau liburu horiek irakurri, *Morfología del verbo auxiliar...* tituluarekin? Aditz laguntzailea hartu baitzuen Yrizarrek euskalkien bereizgarri eta muga-ezarle, Louis-Lucien Bonaparteri jarraiki. Liburu zehatzak, mapa ugariz hornituak, eta argibide abeatsaren emaleak. Sorta horretako hamabosgarren liburukia, azkena, ez du egileak moldezko letretan ikusi ahal izan, zoritxarrez, baina laster dugu kalean, Arabako Diputazioari esker. Sortatik landa, jakina, ez dira ahantzi behar euskal dialektologiari buruzko bi liburuki gotorrak, eremu horretako haren artikuluez osatuak: *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* (1981). Eta zerrenda ez da horrenbestez agortzen: artikulua mordoxka ditu aldizkarietan, azkena *Fontes linguae Vasconum*-ek berriki ateara duen alean (2003:3).

Harrigarria bada ere, euskalaritzaren eremuko lan gehiena bere asti-orduetan egin zuen Yrizarrek, arratsetan, bulegotik etxeratzean, asteburuetan eta oporretan, zaharsaritu arte. Oso bestelakoak baitziren haren ogibideak: irakaslea, Ogasun Ministerioko goi karguduna, geografoa... Bi ingeniari zituena –Industrian eta Geografian, bietan Doktore–, eta gainera Ekonomian lizentziaduna zen. Denetara heldu zen Yrizar nekaezina. Eta oraindik aurkitu zuen denbora aldizkari zientifikoak artatzeko, hizkuntzak ikasteko (errusieraz irakurtzen zuen, eta eleberrigile sonatuen zenbait pasarte buruz zekizkien), pianoa jotzeko, edota emazte eta seme-alabekin bidaiak egiteko.

Urquijo gidari

Pedro Yrizar euskalariaren lehen urratsetan Julio Urquijo dago. Gerra ondoa zen, eta Donostiara joan zitzaion Yrizar bisitaz. Zubigile ona zuen, ezin hobea: Joaquín Yrizar anaia nagusia, arkitektoa, *Las casas vascas* liburu ederraren egilea (1929), Urquijoren adiskide mina.

Berehala sortu zen Julio Urquijo eta Pedro Yrizarren arteko adiskidetasun handia, eta Urquijok ikasletzat, areago: bere ikasle bakartzat, hartu zuen Yrizar. Eskuzabal lagundu ere bai: aurkitzeko zail edo guztiz aurkitu ezin ziren liburuak etxera eraman ahal izaten zituen ikasleak. Maisuak atseginez ikusten zuen Yrizarren aurrerarendua, eta pozik ematen zituen harekin orduak eta orduak, euskara solasgai. Orobat Urquijori esker, Yrizarrek Euskal Herriko eta atzerriko zenbait euskalari ezagutu zituen: Azkue, Uhlenbeck, Lacombe eta beste.

Dialektologiaz gain, bi ikergunek kilikatu zuten Yrizar hasierako urte haietan: konparatismoak eta euskal aditzaren (ustezko) pasibismoak. Urteen poderioz, ordea, eta Koldo Mitxelenaaren eraginez, dialektologiari eskaini zizkion bere ahalegin iz guztiak. Zorioneko euskararen dialektologia atlasa egin beharra zegoen; horren premia guztiak aitortzen zuten. Lehenbailehen egin behar zen, gainera, euskara bera eta euskalkiak eta hizkerak galtzeko arrisku bizian baitzeuden. Bildu ere bildu ziren, Madrilan eta Euskal Herrian, adituak eta agintariak, behin baino gehiagotan. Baina azkenean deus ere ez. Zati-lanak burutu ziren, zorionez: ikertzaileak gutxi izan arren, orduan aritu ziren Mitxelena (Erronkarin, demagun), Nils Holmer, Allières eta abar. Oro-hartzaile bakarra, berriz, Yrizarren egitasmoa. Zazpi probintzietan bilatu zituen langileak, gutunez, telefonoz edo haiekin buruz buru mintzaturik. Eta lortu zituen berri-emaile onak eta fidagarriak, bakarrik edo tarteko hainbat laguntzailerekin. Hauetan bat aipagarria da bereziki: Koldo Artola donostiarra, langile fina, dialektologian aditua eta aritua, adiskide leiala; beronen laguntza gabe ezin zitekeen asmo luze hura aurrera eramane.

Oroitzapen-liburua

Badugu Yrizarrengan alderdi bat guztiz interesgarria, eta edozein euskaldun ikasirentzako gomendagarria. Haren zehaztasuna zela kausa, hots, dena jaso eta papereratze-ko grinagatik, bere oroitzapenak idatzi zituen Yrizarrek. Eskuizkribua oso jende gutxi ezagutzen zuen. Baina zenbaitek uste genuen liburugai hura liburu bihurtu behar zela. Esan eta egin, 2002. urtean, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak, Madrilgo ordezkari-tzaren ardurapean, liburua argitaratu zen, titulu honekin: *Memorias de un vascólogo. Mis relaciones con lingüistas y vascólogos*, Iñigo Yrizar semea eta biok prestatu edizioan.

Benetan nekez aurki daiteke liburu hau baino hoberik, XX. mendearen bigarren erdiaz argibidea jasotzeko, euskal kulturaren gainean oro har, eta bereziki euskalarien gainean, baita euskal gizarteari buruz ere bai. Gorago ere jotzen du Yrizarrek orrialde hauetan. Ezen, adibidez, Urquijok kontatu zizkion gauza batzuk ageri dira, eta maiz umorea falta ez delarik. Demagun, Karlos VII.aren gaiztakeria bere morroi euskaldunarekiko. Honek ezin zuen *r* letra ahoskatu, eta orduan errege-gaia saiatzen zen hitz hauek gertatzen:

- Sácame los pantalones del otro día.
- ¿Cuáles? Los *mejodes*?



Bigarren partean, dialektologia lan luze nekagarrian Yrizarrek izan zituen laguntzaileen izenak ageri dira, bakoitza bere xehetasunekin. Hor ere arretatsu eta zehatz jokatu zuen, bere esker onaren erakusgarri.

Betiko bakean aurki bedi Pedro Yrizar, langile, jakintsu, gizon.

Bilbon, 2004-V-28

*Henrike Knörr,
euskaltzainburordea*